

**UDALETAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN 2. NEURKETA***Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua***AZALPEN OROKORRAK****Non egingo da**

Lehenengo neurketa 100 herri baino gehiagotan egin zen. Lan hau nolabait bi fasetan burutu zen (2006an 65 herritan eta ondoren, 2008an, beste 40 bat herritan). Dinamika honen helburua hau da: hemendik aurrera neurketa berriro egitea aurretik ebaluatutako herri guztietan. 2010tik aurrera, herri horietan guztietan udal legealdiaren bukaeran ebaluazioa egingo da (2010, 2014...).

**Noiz egingo da**

Gure helburua bigarren neurketaren landa-lana (informazio bilketa) 2010ko lehenengo seihilekoan egitea da. Bigarren seihilekoan datuen interpretazioa egingo da. Datuen aurkezpena, berriz, 2011 urtearen hasieran egingo da.

**Neurketarako galdetegiak**

Lehenengo neurketan bezala, erabiliko dugun lan tresna 10 atali buruzko 55 galderaz osatua da. Izan ere, neurketen arteko alderaketa egin ahal izateko ezinbestekoa da galdetegi berdinak erabiltzea.

Herrietan lana hainbat neurtzaileraren artean banatuko dela pentsatuz, galderok ere 4 galdetegitan banatuta daude, egin behar den ahalegina multzo orekatuetan antolatu nahian, neurtzaileen lana errazteko:

- *"Elkarrizketarako galdetegia"*: udal jarduerari buruzko gutxieneko ezagutza duen norbaiten laguntzaz bete behar da, elkarrizketa batean hain zuzen, izenburuak dioen moduan.

Hurrengo hiru galdetegiak behaketa zuzenez bete behar dira, inori elkarrizketarik egin gabe:

- *"Behaketa zuzena-1: Udaletxe barnea eta ingurua"*.
- *"Behaketa zuzena-2: Kalean nonahi eta auzo berriak"*.
- *"Behaketa zuzena-3: Bulego batetik"*.

**Material osagarria**

Erantzunekin batera informazio erantsia emango duten agiri, faktura, diptiko eta bestelako euskarriez baliatu beharra dago, fidagarritasuna funtsezkoa baita. Kalea ikuskatzean argazki kamera izanen da dagoenaren lekuko. Bildutako agiri, paper edo bestelako frogak txukun jasotzea eskertuko genizueke. Argazki bildumaren kasuan CD batean jasotzea eskatzen dizuegu.

Bilketa hau modu antolatuan eta ahalik eta osatuen jaso dadin karpeta bat emango dizue Kontseiluak. Bertan dokumentuak antolatzeko portafolioekin batera, galdetegiak eta datu bilketan jaso beharrekoen zerrenda topatuko duzue. Dokumentazioari dagokionez, bi zerrenda izango dituzue:

- "Elkarrizketarako galdetegia"ri dagozkion dokumentuak: erabakiei buruzko galdetegian hainbat informazio eskatzen da, ordenantzei, plan

orokorrari eta udal erabakiei buruzkoak. Gerta liteke erabaki horiek dagoeneko ordenantzetan hartuta egotea. Dokumentazioa ez da bikoiztu behar, noski. Halakotan aski duzue ordenantzen kopian eskuz markatzea galdera bakoitzari dagokion erabakia.

- "Behaketa zuzena"ri dagozkion dokumentu eta testigantza grafikoan zerrenda: beharrezkoak diren dokumentu eta argazkien zerrenda da.

Kontseiluari karpeta helarazi aurretik dokumentazioaren zerrendak ongi erreparatzea aholkatzen da.

### **Neurketa amaitzean**

Galdetegiak eta behaketarako fitxak bete ondoren honako hau egin behar da:

1. **Lau galdetegiei kopia egin** eta kopia herrian gorde. Jaso duzuen **gainerako materiala ere** (ordenantzak, euskara plana, udalaren erabakiak...) herrian gorde nahi baduzue, **kopia bat egin** eta zuek jaso.
2. **Argazkiak CD batean kopiatu**. Zuek kopia bat gorde.
3. **Karpeta Kontseilura bidali posta arruntez:**
  - Lau fitxen orijinalak beteta.
  - Argazkiak jasotzen dituen CDa.
  - Eskuratu duzuen gainerako materialaren kopiak: ordenantzak, euskara plana, udalaren erabakiak, inprimakiak...

Kontseiluko honako helbidera bidali material hori:

#### KONTSEILUA

Euskaraz bai Dinamika Herrietan  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain-Gipuzkoa

4. Mezu elektronikoko baten bidez **jakinarazi bidali izanaren berri**, iristen ez bada zurekin harremanetan jarri ahal izan gaitezen. Mezu hori honako helbidera bidali: [herriak@kontseilua.org](mailto:herriak@kontseilua.org)
5. Zernahi den ere, prozesuan zehar edozein argibide teknikoren beharra izanez gero, Maite Indarekin harremanetan jarri:  
[maite@kontseilua.org](mailto:maite@kontseilua.org)  
Tel. 628229039 (noiznahi erabilgarri)

Mila esker zuen laguntzarengatik.

